

Donostia, 2016ko urtarrilaren 23a / San Sebastián, 23 de enero de 2016
Europako Kultur Hiriburua / Capital Europea de la Cultura



ESKERRIK ASKO

donostiakultura.com

#DONOSTIA
#SAN SEBASTIÁN FESTAK



URTARRILAREN 23KO OROIGARRI BAT OPARITUKO DIE DONOSTIA FESTAK DANBORRADA GUZTIEI

Arrakasta handikoa izan zen Europako Kultur Hiriburuaren urtea inauguratzeko ekintzan danborradek izandako parte-hartzea. “Donostiar guztien oroimenean geratu dira danborradek erakutsitako maitasuna, aukeraturako lekua eta ekintzak orokorrean piztutako poza”, nabarmendu du Festa Jardueretako Alfonso Gurpegi zinegotziak.

Hain zuzen ere, eta danborradei eskerrona erakusteko, oroigarri berezi bat emango die opari Donostia Festak erakundeak, urtarrilaren 23an Kontxa hondartzako elkaraldian parte hartu zutelako. “Egun hartan airetik egindako argazkirik onena bidaliko diegu danborrada partaide guztiei”, Gurpegiren esanetan. Argazkia 600 x 300 milimetroko metalezko euskarri batean dago, “denok buruan izan dezagun ekintza gogoangarri, arrakastatsu eta ikusgarri-ikusgarri bat, non herritarren partaidetza eta sentipen kolektiboa nabariak ziren”, nabarmendu du Festa Jardueretako Alfonso Gurpegi zinegotziak.

Era berean, ia guztiz jasota ditu Donostia Festakek danborradei 2016ko Hiriburutzako urtearen oroigarri emandako gorbata guztiak, euskarazko bertsioan akats ortografiko bat baitzuen. Horiek egin zituen enpresa akatsaren errua onartu eta, Udalak bat ere ordaindu gabe, konpontzen dihardu; hortaz, laster itzuliko dizkiete gorbatak, testua behar bezala brodatuta dutela.

Gainera, baliabide elkarreragile bat abiarazi du Donostia Festak erakundeak, herritarrek parte har dezaten beren argazkiekin 2016ko Danborrada eta Inauteriak oroimena gordetzen.

Hona hemen herritarren esku dagoen lotura:

<https://www.flickr.com/photos/fiestasdonostia/albums/>.

“Donostia Festakek ezarritako 1.300 argazki daude han, eta gustatuko litzaiguke partaideek nahiz ikusleek jarduera horiek gauzatu bitartean egindakoak ere gehitzea”, esan du Alfonso Gurpegik.

Ekimena elkarreragilea denez gero, hala nahi dutenek argazkiak deskargatu eta Flickr-en Donostia Festakek duen atalera Danborradan eta Inauterietan egin eta beste donostiarrekin partekatu nahi dituztenak. Sustapen ekintzetarako erabil ditzakegu argazkiak. Argazkiak Flickr webgunean agertu ahal izateko, ondoko helbide elektronikora bidali behar dituzte, posta elektronikoz:

donostiakofestak@donostia.eus

Jakina, lotura horren bidez jasotako argazkiren bat erabiltzen duten bakoitzean, egilearen izena agertuko da argazkiaren beheko eskuin bazterrean, egileak hala adieraziz gero.

Hona hemen argazki erreportajeak jasotzeko aukeraturiko argazki bildumak:

2016: Danborradaren harrera eta esker ona / Recepción y reconocimiento a la Tamborrada

Argazkilaria/Fotógrafa: Sara Santos

Korbaten banaketa / Entrega de corbatas

412 photos

By: Donostiako Festak

2016: Bandera Igoera / Izada

Argazkilaria/Fotógrafa: Sara Santos

77 photos

By: Donostiako Festak

2016: Bandera Jaitsiera / Arriada

Argazkilaria/Fotógrafa: Sara Santos

63 photos

By: Donostiako Festak

2016: Haur Danborrada / Tamborrada Infantil

Argazkilaria/Fotógrafa: Sara Santos

177 photos

By: Donostiako Festak

2016: Danborraden Elkarretaratzea hondartzan / Concentración de Tamborras en la playa

Argazkilaria/Fotógrafa: Sara Santos

346 photos 2 views

By: Donostiako Festak

2016: Inauteriak / Carnavales

Argazkilaria/Fotógrafa: Sara Santos

282 photos

By: Donostiako Festak